



AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/5	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi mota	Ohikoa
Eguna	2024ko apirilaren 15a
Iraupena	19:00etatik 19:56ra
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio

A) EBAZPEN-ZATIA





Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko martxoaren 25ekoa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrrik egin nahi dion 2024ko martxoaren 25eko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.

611/2022 espedientea. Dominizubi elkarteari 2022-2023 ikasturterako dirulaguntza izenduna handitzeko irizpena.

Aldekoa **Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Ikusi da Dominizubi Musika Elkarteak 2024ko apirilaren 5ean dirulaguntza izenduna 11.491,00 euroan handitzeko eskatu zuela, 2022-2023 ikasturtean izandako ustekabeko gastuak zirela eta.

Dominizubi Musika Elkarteak 2022ko urriaren 5ean aurkeztu zuen Zigoitia udalerrian 2022-2023 ikasturterako musika-prestakuntzako programa garatzeko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena. Defizita 50.301,52 eurokoa zen.

Ikusi da Alkatetzaren 2023ko urtarrilaren 12ko 11 zenbakiko Ebazpena; horren bidez, 50.301,52 euroko dirulaguntza izenduna eman zitzaion Dominizubi Musika Elkarteari, elkarte horrek, musika-prestakuntzako programa zela eta, 2022-2023 ikasturterako aurreikusitako defizitari zegokiona.

2024ko apirilaren 5ean, elkarteak, 2022-2023 ikasturtean izandako ustekabeko gastuak zirela eta, dirulaguntza 7.596,95 euroan handitzeko eskatu zuen lehenengo aldiz.

Zigoitiko Udaleko Alkatetzak 1/2023 kreditu gehigarria onartu zuen. Kreditu horretan, 334.481.002 aurrekontu-aplikazioa 7.600,00 euroan handitzea jaso zen.

Ikusi da Udalbatzak 2023ko maiatzaren 22an hartutako erabakia, dirulaguntza 7.600,00 euroan handitzea onartzen zuena.

Ikusi da Dominizubi Musika Elkarteak 2023ko urriaren 27an aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa, zeinetan, 2022-2023 ikasturteko diru-sarreraren eta gastuen azken likidazioak 11.491,00 euroko defizit gehigarria baitzuen.

Ikusi da Kulturako teknikariak 2024ko apirilaren 12an egindako txostena, zeinetan justifikazio-kontuaren aldeko txostena eman eta 11.001,89 euroko defizit gehigarria egiaztatu baitzen.

Ikusi da Zigoitiko Udalak, 2024ko apirilaren 12ko 173 zenbakiko Alkatetza Dekretuan onartutako 1/2024 kreditu gehigarriaren bidez, handitu egin zituela 334.481.002 aurrekontu-aplikazioaren hasierako kredituak, 2022-2023 ikasturtean musika-irakaskuntzak emateagatiko gastuaren finantzaketa handitzeko.

Ikusi da Zigoitiko Udalak eta Dominizubi Musika Elkarteak sinatutako hitzarmenaren 2. klausula. Honako hau xedatzen du: *“Udalak konpromisoa hartzen du Dominizubi Musika Elkarteak Zigoitia udalerrian urtero egiten duen musika-prestakuntzako programa garatu eta irakastearen ondorioz sortutako defizita finantzatzeko, Udalak hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ekitaldi ekonomiko bakoitzean ezartzen duen aurrekontu-aplikazioaren kontura. Defizizat hartuko da musika-prestakuntzako urteko programa ematearen, garatzearen eta kudeatzearen ondoriozko diru-sarrerak eta gastuak alderatzearen emaitza negatiboa. Diruz lagundu daitekeen gehieneko muga ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean dagoen udal-aurrekontuaren aurrekontu-aplikazioan dagoen zuzkidura ekonomikoa izango da. Aurrekontu hori urtero finkatzeko, kontuan hartuko da,*





Dominizubi Musika Elkarteak aurkeztutako prestakuntza-programaren diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspena. Zigoitiko Udalak, ikasturte bakoitzerako, dirulaguntza hori alde aurretik ordaintzea izapidetuko du, justifikatu aurretik, musika-prestakuntzako programa gauzatzeko beharrezko finantzazio gisa, eta ez da bermerik ezarri beharrik izango”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Legearen 22. Eta 34.4 artikuluen arabera eta Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 11.3 artikuluen arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Onestea Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntza izenduna 11.001,89 euroan handitzea, 2022-2023 ikasturteko musika-prestakuntzako programa garatzearen ondoriozko defizitari aurre egiteko.

BIGARRENA. Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntza izenduna 11.001,89 euroan handitzea, 2022-2023 ikasturteko musika-prestakuntzako programa garatzearen ondoriozko defizitari aurre egiteko.

HIRUGARRENA. Dominizubi Musika Elkarteari 11.001,89 euroko zenbatekoa ordaintzeko agintzea, indarrean dagoen udal-aurrekontuko 334.481.002 partidaren kargura.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea Dominizubi Musika Elkarteari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

BOSGARRENA.- Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratzea, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan xedatutakoarekin.

698/2023 espedientea. Dominizubi elkarteari 2023-2024 ikasturterako dirulaguntza izenduna handitzeko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Ikusi da Zigoitiko Udalak eta Dominizubi Musika Elkarteak sinatutako hitzarmenaren 2. klausula. Honako hau xedatzen du: *“Udalak konpromisoa hartzen du Dominizubi Musika Elkarteak Zigoitia udalerrian urtero egiten duen musika-prestakuntzako programa garatu eta irakastearen ondorioz sortutako defizita finantzatzeko, Udalak hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ekitaldi ekonomiko bakoitzean ezartzen duen aurrekontu-aplikazioaren kontura. Defizitat hartuko da musika-prestakuntzako urteko programa ematearen, garatzearen eta kudeatzearen ondoriozko diru-sarrerak eta gastuak alderatzearen emaitza negatiboa. Diruz lagundu daitekeen gehieneko muga ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean dagoen udal-aurrekontuaren aurrekontu-aplikazioan dagoen zuzkidura ekonomikoa izango da. Zigoitiko Udalak, ikasturte bakoitzerako, dirulaguntza hori alde aurretik ordaintzea izapidetuko du, justifikatu aurretik, musika-prestakuntzako programa gauzatzeko beharrezko finantzazio gisa, eta ez da bermerik ezarri beharrik izango”.*

Lankidetzeta-hitzarmena lau urtez luzatu zen eta 2024ko azaroaren 6ra bitartean dago indarrean.

Dominizubi Musika Elkarteak 2023ko azaroaren 7an aurkeztu zuen Zigoitia udalerrian 2023-2024 ikasturterako musika-prestakuntzako programa garatzeko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena. Defizita 71.404 eurokoa da. Era berean, 2023ko abenduan, Udalari dirulaguntzaren aurrerakina eskatu zioten, erakundeak ez baitzuen likideziaz langileen gastuak ordaindu ahal izateko.

Udalaren 2023rako Aurrekontu Orokorrek 2022-2023 ikasturteari zegokion gasturako hasierako kredituak baino ez zituen jasotzen; izan ere, Elkartearentzako dirulaguntza izenduna urte natural bakoitzeko lehen hilabeteetan aitortzen da.

Ikusi da Zigoitiko Udalak, 2023ko abenduaren 13ko 574/2023 zenbakiko Alkatetza





Dekretuan onartutako 7/2023 kreditu gehigarriaren bidez, 334.481.002 aurrekontu-aplikazioaren hasierako kredituak 20.000 euroko zenbatekoan handitu zituela.

Ikusi da Udalbatzak 2023ko abenduaren 18an hartutako erabakia; horren bidez, 20.000 euroko dirulaguntza izenduna eman zitzaion Dominizubi Musika Elkarteari, elkarre horrek 2023-2024 ikasturterako bere musika-prestakuntzako programa zela-eta aurreikusitako defizitari aurre egiteko eta finantzaketa osatzeko, 2024rako onartzen den aurrekontu orokorrean zehaztutako baldintzetan.

Zigoitiko Udalak 61.000 euroko kreditua du 334.481.002 aurrekontu-aplikazioan Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntza izenduna emateko, musika-prestakuntzako programa zela-eta aurreikusitako defizitari aurre egiteko.

Ikusi da Alkatetzaren 2024ko otsailaren 6ko 55 zenbakiko Dekretua; horren bidez, 41.000 euroko dirulaguntza izenduna eman zitzaion Dominizubi Musika Elkarteari, elkarre horrek 2023-2024 ikasturterako musika-prestakuntzako programa dela-eta aurreikusitako defizitari aurre egiteko. Beraz, 2023ko abenduaren 18ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez emandako 20.000 euroko dirulaguntza gehituta, 2023-2024 ikasturteko musika-prestakuntzako programarako 61.000 euroko dirulaguntza izendun osoa osatzen dute.

Ikusi da Dominizubi Musika Elkarreak 2024ko martxoaren 25ean aurkeztu zuen esakera, zeinetan alegatu baitzuen emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez dela nahikoa 2023-2024 ikasturteko musika-prestakuntzako programaren defizita finantzatzeko; hortaz, dirulaguntza 16.000 euroan handitzeko eskatu zuten. Zenbateko hori 2024ko apirilaren 5ean aurkeztutako dokumentazio osagarrian zuzendu zen, eta, azkenean, 13.925,45 euroko igoera eskatu zuten.

Ikusi da Zigoitiko Udalak, 2024ko apirilaren 12ko 173 zenbakiko Alkatetza Dekretuan onartutako 1/2024 kreditu gehigarriaren bidez, handitu egin zituela 334.481.002 aurrekontu-aplikazioaren hasierako kredituak, 2023-2024 ikasturtean musika-irakaskuntzak emateagatikoa gastuaren finantzaketa handitzeko.

Kontuan hartu da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2 artikulua honako hau xedatzen duela: *"zuzenean eman ahal izango dira Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako aurrekontu orokorretan izenaren bidez aurreikusitako dirulaguntzak, dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian eta hitzarmenetan jasotako moduan. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, estatuko aurrekontu orokorretan aurreikusitako dirulaguntza izenduntzat joko da aurrekontuko gastuen egoeretan gutxienez aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituen. Dirulaguntza horien xedea berariaz zehaztu beharko da dagokion lankidetzaren hitzarmenean edo laguntza emateko ebazpenean, eta bat etorri beharko du dagokion aurrekontu-kredituaren sailkapen funtzional eta ekonomikoarekin.*

Aurrekontu-kreditua eman da aurrekontu-aldaketa izapidetuz, eta Udalaren Osoko Bilkuraren eskumena da Zigoitiko Udalaren Aurrekontu Orokorra onartzea, eta, beraz, organo eskuduna da onuraduna eta aurrekontu-zuzkidura ebazteko, dirulaguntza izenduna emateko ondorioetarako.

Aintzat hartu da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 34.4 artikulua honako hau adierazten duela: *"ordainketa aurreratuak ere egin ahal izango dira, justifikazioa egin aurretik funtsak ematea ekarriko dutenak, dirulaguntzaren berezko jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzazio gisa".*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan esleitutako eskumenen arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Onestea Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntza izenduna 13.925,45 euroan handitzea, 2023-2024 ikasturteko musika-prestakuntzako programak eragingo duen aurreikusitako defizitari aurre egiteko.

BIGARRENA. Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntza izenduna 13.925,45 euroan handitzea, 2023-2024 ikasturteko musika-prestakuntzako programak eragingo duen aurreikusitako defizitari aurre egiteko. Dirulaguntzaren azken zenbatekoa 74.925,45 eurokoa izango da.

HIRUGARRENA. Dominizubi Musika Elkarteari dirulaguntzaren 13.925,45 euroko





aurrerakina ematea.

LAUGARRENA. Aldeko saldo horrekin 7.713,67 euroko zorra konpentsatzea, 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzatik itzultzeko dagoen zenbatekoari dagokiona, eta Dominizubi Musika Elkarteari 6.211,78 euro ordaintzea (13.925,45 – 7.713,67), indarrean dagoen udal-aurrekontuko 334.481.002 partidaren kargura.

BOSGARRENA. Ebazpen honen berri ematea Dominizubi Musika Elkarteari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

SEIGARRENA. Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea, bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan xedatutakoarekin.

183/2024 espedientea. Udal-langileari gradua aitortzeko irizpena

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Ikusia da 2024ko martxoaren 2an, Raúl ACEVES MARTÍNEZ DE MARIGORTA udal-langileak idazki bat aurkeztu zuela. Idazki horretan, Zuiako Udalean askotariko eginkizunetarako langile gisa duen lanpostuan finkatutako graduaren 16. lanpostu-mailako osagarriari dagokion gradu pertsonala aitortzeko eskatu zuen, bai eta Zigoitiko Udaleko langile finko gisa kontratatu zutenetik zor zaizkion zenbatekoak ordaintzeko ere, berandutze-interesekin eta legezko interesekin batera, honako oinarri hauetan oinarrituta:

1.- Bitarteko funtzionario gisa aritu da Zuiako Udalean, askotariko eginkizunetarako langile kategorian, 2009ko martxoaren 4tik 2024ko urtarrilaren 16ra bitartean. Ondorio horietarako, emandako zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu du.

2.- Bere ustez, Zuiako Udalean lanpostua benetan betetzeagatik 16. norberaren gradua finkatu du, eta 16. mailari dagozkion zenbatekoak ordaindu behar zaizkio.

Udalhitz Hitzarmenaren 86. artikulua arabera, *“maila jakin bateko lanpostu baten edo gehiagotan bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte etenekin egitean lortzen da gradua, betiere Euskal Funtzio Publikorako araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira”*. Alegatu du Euskal Enplegu Publikoaren Legearen bosgarren xedapen iragankorrek irizpide hori berresten duela.

3.- Azaldu du Zuiako Udaleko lanpostuan taldeko gutxieneko mailan hasi zela lanean, 11.enean hain zuzen ere, eta bi urtean behin goragoko bi maila finkatu dituela. Horrela, 2011n 13. gradua finkatu zuen, 2013an 15. gradua eta 2015ean¹ 16. gradua, hau da, Zuiako Udaleko langile lanpostuaren mailarik gorena.

Badirudi karrera profesional hori Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen bosgarren xedapen iragankorrean oinarritzen duela. Xedapen horrek honela dio: *“Karrerako funtzionarioak beren gradu pertsonalari dagokion maila baino goragoko lanpostu batean ari direnean, jarraian emandako bi zerbitzu-urterik behin finkatuko dute gradu bat, gehienez ere lortuta dutena baino bi maila goragokoa izango dena; hala ere, inoiz ezingo da izan betetzen ari diren lanpostuari dagokiona baino handiagoa”*.

4.- 16. gradua aintzatestea eta finkatzea araudiak aurreikusitako tarteen mugen barruan sartzen da, eta E taldearen (lanbide-taldea) gehieneko maila 16.a da, Udalhitz Hitzarmenaren 70. artikulua arabera.

5.- Alegatu du ezin zaiola gradu pertsonala aitortzeari aurka egin Zuiako lanpostua bitarteko moduan betetzeagatik; izan ere, jurisprudentzia batek adierazten du ezin direla gradu pertsonala aitortzetik kanpo utzi Administrazioari aldi baterako lotura baten bidez lotutakoak. Auzitegi Gorenaren azaroaren 7ko 1592/2018 Epaia aipatzen du (Administrazioarekiko Auzien Sala, 4. atala).

1 Udalbatzak 2024ko maiatzaren 20an eginiko ohiko bilkuran onetsitako aktaren zuzenketa.





Ikusi dira eskatzailearen alegazioak, eta egokitzen jotzen da uziak ezestea, honako oinarri hauek direla eta:

1.- Lehenik eta behin, langile lan-kontratudunen eskubidearen esparru juridikoa testuinguruan kokatu behar da, gradu pertsonala finkatzean. Langileak funtzionario-harremana zuen Zuiako Udalarekin, baina Zigoitiko Udalarekin gaur egun duen harremana lan-kontratudunena da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 27. artikulua xedatzen du langile lan-kontratudunen ordainsariak eta ordainsari horiek osa ditzaketen kontzeptuak finkatzeko orduan lan-arloko legeria, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta lan-kontratu hartuko direla oinarri.

Era berean, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 177. artikulua ezartzen du toki-erakunde bateko langile lan-kontratudunei oso-osorik aplikatuko zaiela lan-arloko zuzenbidea.

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 26.3 artikulua honako hau xedatzen du:

“Hitzarmen kolektibo bidez, edo, halakorik ezean, bakoitzaren kontratuan, zehaztu egin behar da soldataren egitura: batetik, oinarrizko soldata bat jaso behar du langileak, eta denbora-unitateka edo lan-unitateka finkatutako ordainketa izango da, eta bestetik, halakorik badago, soldata-osagarriak izango ditu, langilearen egoera pertsonalen, egindako lanaren, eta enpresaren egoeraren eta emaitzen arabera finkatuta, betiere horretarako itundutako irizpideen arabera kalkulatuta. Era berean, soldata-osagarriak finkagarriak diren edo ez ere itundu egin behar da; kontrako akordiorik ez badago, ez dira finkagarriak izango lanpostuari lotuta daudenak, edo enpresaren egoerari eta emaitzei lotuta daudenak”.

Beraz, langile lan-kontratudunen ordainsarien araubidea lan-zuzenbidearen arabera arautzen da, eta, ondorioz, legez funtzionarioentzat soilik aurreikusten den gradu pertsonalaren finkapena langile lan-kontratudunei aplikatuko zaie hitzarmen kolektiboaren bidez.

Udalhitz hitzarmenaren 86. artikulua gradu pertsonala eskuratzea aurreikusten du, honako hau aipatzen duenean:

- “1. Erakundearen barne-ondorioetarako, langile lan-kontratudunek norberaren gradua izango dute.*
- 2. Maila jakin bateko lanpostu baten edo gehiagotan bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte etenekin egitean lortzen da gradua, betiere Euskal Funtzio Publikorako araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira.*
- 3. Ikastaro bereziak eginez ere lor daiteke norberaren gradua, eta horiek egin ahal izateko, meritua eta gaitasuna irizpideak hartuko dira kontuan; Erakundeko Batzarrak erabakiko du nortzuk egingo dituzten ikastaro bereziak.*
- 4. Ordainsari osagarriak jasotzeak ez du berarekin ekarriko langile publikoentzako mantendu beharreko eskubide batzuk sortuko direla, ez bada lortutako graduari dagokion lanpostu-mailako osagarria jasotzea”.*

Era berean, lanpostu-mailako osagarria arautzen duen hitzarmenaren 70. artikulua honako hau adierazten du:





“1. Lanpostu-mailako osagarria kontzeptua, arautzea, egitura eta zenbatekoa Euskal Funtzio Publikoaren araudiak eta Hitzarmen honek zehaztuko dituzte.

2. Lanpostu-osagarria betetzen duen lanpostuaren araberakoa da, eta horren zenbatekoa Erkidego Autonomoko Aurrekontu Nagusiak zehaztuko du urtero.

3. Lanpostu bakoitzari dagokion Lanpostu-mailako osagarria zehaztuko du Erakundeak.

4. Lanpostuak 30 mailatan banatuko dira, eta horien minimoak eta maximoak abenduaren 22ko 343/1993 Dekretuaren arabera zehaztuko dira, eskala hau jarraituta:

	Maila minimoa	Maila maximoa
A taldea:	21	30
B taldea:	17	26
C taldea:	14	22
D taldea:	11	19
E taldea:	8	16

2.- Karrerako funtzionarioen karrera horizontalari dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 17. artikulua ezartzen du Estatutua garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeek karrera horizontala arautu ahal izango dutela, eta igotzeko graduen, kategorien edo mailen sistema aplikatu ahal izango dutela. Horretarako, lan-ibilbidea eta -jarduna, egindako lanen kalitatea, bereganatutako jakintzak eta jardunaren ebaluazioaren emaitza baloratu beharko dira.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak mailen araberako garapen profesionaleko sistema bat ezartzeko oinarriak ezartzen ditu. Sistema hori arau bidez garatu gabe dago oraindik. Horrela, gradu pertsonalak eskuratzeko eta finkatzeko sistemak indarrean jarraituko du aldi baterako, euskal administrazio publiko bakoitzak ezarritako lanpostuen tarte mailaren arabera, aipatutako legearen 5. xedapen iragankorraren 2. paragrafoarekin bat etorritik.

Hala, gradu pertsonala funtzionario edo langile batek administrazio publiko jakin baten barruan izan duen karrera profesionalaren garapenaren adierazpen bat da, eta hori finkatu egiten da kidego edo eskala jakin bati dagokion lanpostu jakin bat betetzeagatik. Gradu jakin bat finkatzeko, dagokion kidegoan gauzatutako lanpostuak bakarrik zenbatu daitezke, baina inoiz ere ez beste kidego batean edo beste administrazio batean finkatutako gradua, hizpide dugun kasuan gertatzen den bezala. Hortaz, ezin da mantendu eskatzen den gradua, beste kidego batean eta beste toki-administrazio batean sortu delako, eta Udal honetan hasi den administrazio-karrera ez den beste batean.

Bi administrazio-karrerak agerian uzten dute ezberdinak direla. Alde batetik, lanpostuak administrazio publiko desberdinetan betetzen dira. Bestetik, lanpostuaren sailkapenean ez dago antzekotasunik; Zuiako Udalak eta Zigoitiko Udalak, lanpostuen zerrendetan, talde desberdinetan sartzen dituzte lanpostuak, C2 taldean eta lanbide-taldean, hurrenez hurren. Horrez gain, bi lanpostuek lanpostu-mailako osagarriaren tarte-maila desberdina dute.

Zuiako Udaleko askotariko eginkizunetarako langile funtzionarioaren lanpostuan, C2 taldean sartutakoan, administrazio-karrerak 11. mailatik 19. mailara bitarteko ibilbidea zuen; hala ere, Zigoitiko Udaleko mantentze-lanetako langile lan-kontratudunen lanpostuan, E taldean (lanbide-taldea), administrazio-karreraren ibilbidea 8. mailatik 16. mailara bitartekoa da.





3.- Gainera, ondorioztatzen dugu funtzionarioa beste administrazio bati dagokion eskala berri batean sartzen denean, gradu finkatua ez dela mantentzen, nahiz eta bi kasuetan eskalaren eta azpieskalaren sailkapen bera izan.

Egoera hori behin eta berriz errepikatzen da Udaltzaingoko funtzionarioen artean. Ohikoa da pertsona bera polizia-kidego batean baino gehiagotan sartzea eta horrek orain aztertzen ari garen arazoa planteatzea, dagoeneko bere gradua finkatuta duen funtzionarioa baita. Horregatik, bereziki interesgarria da Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2018ko maiatzaren 10eko epaia. Epaia horretan, Madrilgo Udaleko abokatuak jarritako errekurtsua baiesten da, auzialdiko epaia baliogabetzen da, eta berretsi egiten dira aurkaratutako administrazio-ebazpenak, zeinak errekurtsogileari ukatu egiten zioten jatorrizko udal bateko Udaltzaingoa kidegoari dagokion lanpostu-mailako osagarriaren mailaren gradu finkatuaren aintzatespena ukatzen ziotenak, geroago sartu zen beste udal bateko Udaltzaingoa kidegoari dagokionez. Honako hau adierazten dute ebazpenek:

“Errekurtsogileak azpimarratu egiten du Torrejon de la Cazadako Udaleko Udaltzaingoko kidea zenez, Madrilgo Udaleko Udaltzaingoa kidego bera dela.

Baina hori ez da horrela, kontuan hartu behar baita udalerrri bakoitzean Udaltzaingoa kidego bakar batean integratuko dela.../... ”.

Ondorioz, eta hargatik eragotzi gabe beharrezkoa denean hainbat udalerritako udaltzaingoen artean beharrezkoa den koordinazioa eta lankidetzak, udalerrri bakoitzak “bere Udaltzaingoa” du, beste udalerrri batzuetako kidegoetatik independentea.

Hortaz, .../... jauna “mugikortasun-sistemaren” bidez Madrilgo Udaleko Udaltzaingoa sartu zenean (parte hartzeko, hain zuzen ere, “Madrilgo Erkidegoko Udaltzaingoko edozein kidegotako kide” izateko baldintza bete behar zuen) berea ez zen beste kidego batean sartu zen, eta, hain zuzen ere, horregatik, eta udal apelatzaileak adierazi duen bezala, “borondatezko eszedentzia-egoeran” geratu da.

Ondorioz, argi dago, lehen aipatutako manuen arabera, .../... jaunak ezin duela mantendu beste kidego bateko kide zenean aitortuta zuen maila pertsonal bera, eta, gainera, adierazi behar da horrek ez dituela urratzen enplegu publikoak lortzeko berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun- printzipioak; izan ere, aipatutako Udalak beste udalerrri bateko Polizia Kidegoan emandako zerbitzuak eta antzintasuna aitortu dizkio apelatutako errekurtsogileari, ondorio ekonomiko guztietarako.4.- Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 9. xedapen gehigarriaren arabera, “karrerako funtzionarioen lanbide-karrerak abiaburu izango ditu, gairatu beharreko hautaketa-prozesua gairatutakoan, funtzionarioari hasiera batean esleitu zaion plazari dagozkion gradua, maila, kategoria, eskaloia eta antzeko kontzeptuak; abiaburu horiek minimotzat joko dira. Horiek abiapuntutzat hartuta hasiko da langilea gora egiten, eremuetako bakoitzean aplikatu beharreko karrera-modalitatea zein den aintzat hartuta”. Ildo beretik jo du martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 70.3 artikulua (364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena). Izan ere, artikulua horrek ezartzen duenaren arabera, “funtzionarioek hasierako gradu pertsonal gisa finkatuko dute, nahitaez, hautaketa-prozesua gairatu ondoren esleitutako lanpostuaren mailari dagokiona”.

Azaldutako araudiaren arabera, ondoriozta daiteke langilea hautaketa-prozesuaren ondoren esleitutako lanpostuari dagokion graduan hasiko dela. Beraz, Raúl Aceves Martínez de Marigorta udal-langilea, hautaketa-prozesua gairatu ondoren, Zigoitiko Udaleko mantentze-lanetako langile lanpostuan sartu dela ikusita, eta aintzat hartuta lanpostu horrek 12. lanpostu-mailako osagarria esleitura duela lanpostu-zerrendan, Zigoitiko Udaleko Udaltzatzak egindako lanpostuaren konfigurazioaren arabera ordainsari-mailari eutsi





behar zaio eta ezin izango du mantendu Zuiako Udalean betetako lanpostuan finkatutako 16. maila. Udal baten graduak ez dio hurrengoari eragiten; izan ere, azken horretan funtzio publikorako beste sarbide bat dago, eta, beraz, administrazio-karrera berri bat hasten da.

Ildo horretan, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko ekainaren 6ko epaiak (errekurtso-zenbakia: 1298/2018) honako hau dio:

Errekurtso honek sortutako eztabaida behin eta berriz ebatzi du Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko 7. atal honek hainbat epaian, besteak beste, epaileak a quo errepikatzen duena auzialdiko epaian. Beraz, berretsi egin behar dugu, eta gaineratu behar dugu gradu pertsonala dela funtzionarioaren benetako eskubide subjektiboa, eta berme subjektiboa dela gradu horri dagokion lanpostu-mailako osagarria jasotzeko, edozein dela ere betetzen den lanpostua. Gradu pertsonalaren araubide juridikoa Konstituzioaren 103.3 artikulua aurreikusten duen funtzionario publikoen estatutuari dagokio; baina funtzionarioa kidego jakin batekoa (eta ez beste batekoa) izateagatik baino ez da eskuratzen, eta finkatutako gradua ezin da kidego desberdinen artean eskualdatu, bi kategorietarako sarbideak independenteak izan baitira. Ez dago zalantzarik beste administrazio publiko batean funtzionario izaera txanda irekiaren bidez eskuratzea merezimendua dela. Horixe da, hain zuzen ere, errekurtsogilearen kasua; izan ere, Madrilgo Komunitate Autonomoko funtzionario izanik XXXXXXko Udalean lanpostua lortu zuen administrari laguntzailearen oposaketa bidez, eta Madrilgo Komunitate Autonomoan eszedentzia eskatu ondoren hasi zen lanpostu horretan. Hala ere, kasu honetan, aztergai dugun gaia arautzen duten arauak aplikatu behar dira, hala nola martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuaren 70.3 artikulua, zeinaren arabera funtzionarioek hasierako gradu pertsonal gisa finkatuko dute, nahitaez, hautaketa-prozesua gainditu ondoren esleitutako lanpostuaren mailari dagokiona. Ondorioz, gradu jakin bat finkatzeko, dagokion kidegoan gauzatutako lanpostuak bakarrik zenbatu daitezke, baina inoiz ere ez beste kidego batean edo beste administrazio batean finkatutako gradua, hizpide dugun kasuan gertatzen den; arau horrek 30/84 Legearen 22.1 artikulua hirugarren paragrafoan aurreikusitako salbuespena (araua berresten duena) du, eta, horren arabera, barne-sustapeneko sistemaren bidez beste kidego eta eskala batzuetan sartzen diren funtzionarioek "jatorrizko kidego edo eskalan finkatutako gradu pertsonala mantenduko dute, betiere kidego edo eskala berriari dagokion maila-tartean sartuta badago, eta horietan emandako zerbitzu-eginkizunetan emandako denbora, hala badagokio, gradu pertsonala finkatzeko aplikatuko da".

5.- Gainera, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 5. xedapen iragankorraren araubide iragankorrek bat etorritik, "Administrazio bakoitzak lanpostuen tarteetarako ezarritako gutxieneko mailari dagokion gradua eskuratuko dute funtzionario sartu berriek, eta gradu horren finkatzea artikulua honetako arauen arabera eraenduko da, batez ere i) letrakoaren arabera". Ondorioztatzen dugu Raul ACEVES MARTÍNEZ DE MARIGORTA langileak, lanean hasi ondoren, E taldeari (lanbide-taldea) esleitutako tartearen gutxieneko gradu pertsonala eskuratzen duela, zehazki, 8. gradua, eta gutxieneko maila horretatik aurrera, betetzen duen lanpostuari esleitutako maila finkatu ahal izango du, 12. maila, i) ataleko arauekin bat etorritik:

Ikusi dira azaldutako aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan esleitutako eskumeneren arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ezestea Raúl ACEVES MARTÍNEZ DE MARIGORTA langileak aurkeztutako eskaera, eta Zuiako Udalean langileak finkatutako gradu pertsonala mantentzea ukatzea, 16. lanpostu-mailako osagarriaren mailari dagokiona, bai eta erreklamaturako zenbatekoak ere; izan ere, Zuiako Udalean finkatutako graduak ez dio eragiten Zigoitiko Udalean eskuratutako lanpostuari, funtzio publikorako beste sarbide bat dago, eta, beraz, administrazio-karrera berri bat hasten da.





BIGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta dagozkion errekursoen berri ematea.

51/2024 espedientea. Zigoitiko Udalaren 2024 urterako Urteko Araudi Plana aldatzeko irizpena.

Aldekoa **Bozketa mota:** ohikoa/aho batez

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 132. artikuluan ezartzen duenez, administrazio guztiek urteko araudi plana onetsi eta argitaratu behar dute. Plan horretan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.

Aurreikuspen horren helburua da ordenamendu juridikoaren gardentasuna eta auresangarritasuna handitzea, eta horren bidez, bermatu nahi da araugintza-ekimena gainerako arau aplikagarriekin modu koherentean gauzatzen dela, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko. Halaber, araugintza-ekimenaren gardentasuna handitzen du. Izan ere, horien edukia argitaratzen da eta ondorioz, gainerako administrazio publikoek eta herritarrek aurretiaz izan dezakete administrazio horrek zein arau onartzea aurreikusten duen.

Ikusi da idazkariaren 2024ko urtarrilaren 17ko txostena, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, Udaltzatza, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Onestea Zigoitiko Udalaren 2024 urterako Urteko Araudi Planaren aldaketa, eranskin moduan txertatzen dena, udal-etxebizitza tasatuen inguruko ordenantza arautzailearen idazketa gehituta.

BIGARRENA. Zigoitiko Udaleko Urteko Araudi Plana udalaren web-gunean (www.zigoitia.eus) argitaratzea agintzea.

ERANSKINA:

ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKO SAILA			
MOTA	EKIMENAREN IZENBURUA	AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza	Ordenantza fiskalen berrikuspena	Ez	Alkatetza
Hirigintza-antolamendua	Hiri-antolamenduko plan orokorraren hasierako onespina	Bai	Alkatetza
Hirigintza-antolamendua	Arau subsidiarioak_ Muruako BPE aldaketa puntualaren hasierako onespina	Bai	Alkatetza
Etxebizitza	Udal-etxebizitza tasatuen ordenantza sortzea	Bai	Alkatetza
KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA, INGURUMENA, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA SAILA			
MOTA	EKIMENAREN IZENBURUA	AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza / araudia	Gorbeiaiko parke mikologikoaren ordenantza eta araudia sortzea	Bai	Saileko zinegotzi eskuordea
Ordenantza	Hondakinen kudeaketaren ordenantza arautzailea sortzea, dagokion zehapen-erregimena barne	Bai	Saileko zinegotzi eskuordea
BERDINTASUNA ETA GAZTERIA SAILA			
MOTA	EKIMENAREN IZENBURUA	AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza	Aldatzen diren ordenantzak hizkuntza inklusiboa erabiliz zuzentzea	Ez	Saileko zinegotzi eskuordea
EUSKARA, GIZARTE ONGIZATEA, LANKIDETZA, NEKAZARITZA ETA MENDIAK SAILA			
MOTA	EKIMENAREN IZENBURUA	AURRETIAZKO	ARDURADUNA





216/2024 espedientea. Etxeko laguntza zerbitzuari buruzko mozioa

Aldekoa	Bozketa mota: Izenduna <i>Alde: 5 boto; aurka: 4; abstentzioak: 0²</i>
Aldekoak	EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
Aurkakoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ-PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ-PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)
Abstentzioak	-

Alkate jaunak bere udal-taldearen (EAJ-PNV) aurkako botoa justifikatzen duen testu bat irakurri du.

“Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 10.3 artikulua ezartzen du Gobernuak, errege dekretu bidez, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak ezarritako irizpideak onartuko dituela, zerbitzuen babesaren intentsitatea eta horien arteko bateragarritasuna eta bateraezintasuna zehazteko. Halaber, lege horren 20. artikulua ezartzen du Gobernuak errege dekretu bidez onetsiko dituela prestazio ekonomikoen zenbatekoak, Lurralde Kontseiluak adostu ondoren.

Aurreko aginduak betez Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua onetsi zen. Prestazio horiek Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotzen dira.

Nahitaez bete beharreko lege-araua da.

Gauzak horrela, estatu mailako 675/2023 Errege Dekretuak 1021/2013 Errege Dekretua aldatzen du.

Proposatzen den aldaketak autonomia pertsonalaren sustapenean sakontzen du eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak jasotzen duten arreta hobetzea dakar. Hala, bat dator desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen 2006ko abenduaren 13ko Konbentzioaren edukiarekin, Espainiak 2007ko azaroan berretsia. Konbentzio horren xedea da desgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak osoki eta berdintasun-baldintzetan gozatzea sustatzea, babestea eta bermatzea. Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak mendekotasunaren arloko talka-plana adostu zuen 2021eko urtarrilaren 15eko bilkuran. Besteak beste honako neurri hauek jasotzen ditu: gutxieneko babes-mailaren zenbatekoak handitzea; telelaguntza eskubide subjektibotzat jotzea; prestazio ekonomikoak eta mendekotasunaren arretarako zerbitzuen hobekuntza-egutegia ezartzea, bai zenbatekoetan, bai intentsitateetan; eta familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoak aldatzea.

Arabako Foru Aldundiak Errege Dekretu hori aplikatzeko proposamenean, ELZren intentsitateak berrikusi ziren Errege Dekretuarekin bat eginez eta ELZren eskaerari eutsi zitzaion

2 2024ko maiatzaren 20ko bilkuran onetsitako aktaren zuzenketa.





irizpide teknikoaren arabera premia hori zuten salbuespen-egoeretan.

Zentzu horretan, Administrazio honek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei (OGZ) igorritako jarraibideek ez dute inoiz ezabatzen mendekotasun-arriskuan dauden pertsonentzako arreta, eta zerbitzu espezializatu eskudunak baloratu behar ditu, kontingentzia hori benetan zehazteko, zerbitzu horietako profesionalen iritziz teknikoaz harago.

Gainerako kasuistikek arreta jaso dezakete, ez salbuespenezko izapideekin, mozio horretan adierazten den moduan, baizik eta salbuespen gisa, irizpide teknikoekin. Hau da, izapidea ez da Administrazio Kontseiluaren aurrean salbuespenezko espediente gisa egingo (zuen idatzian ulertzen den moduan), hori ez baita beharrezkoa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eskumenak eskuordetzean onartutako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudian jada jasotako kasuak direlako. Aitzitik, instrukzioak aipatzen duenez, interesdunen eskaeren ondoren ez da izapide automatikorik egingo, orain arte egiten zen moduan; aldiz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu horiek analisi eta diagnostiko bat egin beharko dute eta dagokien gizarte-txostenetan eskubide subjektibotzat hartzen dena gainditzen duen premia eta horren arrazoiak islatu beharko dituzte.

Ehuneko oso handi batean, zerbitzu horiek soilik menajero-motako edukiekin eman dira, eta beharrezko balorazio orokorra egin nahi da, eskatzaileen egoera bizi-eremu guztietan kontuan hartuz, hala nola autonomia, babes-sarea, etxebizitzaren egoera, egoera ekonomikoa...

Horretarako, artatuak izateko orduan zalantzarik sortzen ez duten kasu jakin batzuk tasatzen dira: egoera terminalean dauden pertsonak, gerora mendekotasuna dutenak edo aldi baterako porrota dutenak, kalteberatasun handiko edo gizarte-bazterkeriako egoeran daudenak.

Gehiago sakontzeko, baita menajero-izaera duten zereginetan ere —horiek arreta pertsonalaren osagarri gisa baino ezin izango direla sartu ezartzen da—, zeregin bakartzat hartzen dira, halaber, mendekotasun-arriskuan edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutakoak direnean. Hala, zuen idatzian aipatzen duzuen babes eta prebentzio funtzioari erantzuten dio.

Hori guztia dela eta, ez da ulertzen, eta ez da egokia irizten, instrukzio hori indarrrik gabe uzteko mozio horri baiezko erantzuna ematea.

Administrazio honek ahalegin ekonomiko handia egiten du udal-eskumeneko zerbitzu baten kudeaketan eta kostuan, eta, gainera, 675/2023 Errege Dekretua argitaratu zenetik, estaldura nabarmen handitzen da. Aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzu honen kostua 7.401.314,39 €-koa izan zen, aurrekontuan ezarritakoa baino handiagoa (6.810.000 €). Horrek erakusten du Administrazioak kezka handia duela 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren pertsonen beharrei erantzuteko, eta zerbitzu honen eta beste zerbitzu batzuen bidez beren etxebizitzetan ahal bezain beste denbora mantentzea ahalbideratzen du bizi-kalitate ona mantenduz".

Jarraian, mozioa bozkatu da eta gehienek honako eduki hau onetsi da:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi duten bezala, Arabako Foru Aldundiak agindu die, etxeko laguntza-zerbitzuen (aurrerantzean ELZ) intentsitateak aldatzen dituen 675/2023 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, orain arte pertsona autonomoei eskainitako zerbitzua ere aldatzea, oso egoera zehazterara mugatuz eta salbuespenezko izapideekin.

Errege Dekretu horretan jasotzen ez badira ere, orain arte artatu diren kasuetako askok, irizpide teknikoaren arabera asteko hiru orduko gehieneko intentsitatearekin, argi eta garbi betetzen dute babes- eta prebentzio-funtzio garrantzitsua.

Honako hauek dira gure udalari dagozkion datuak:

- 2021 urtea – 18 pertsona
- 2022 urtea – 20 pertsona
- 2023 urtea – 18 pertsona

ELZren 2018ko eskumen-eskuordetzearen testuan, orain eragiten dieten kasuak sartu dira:





Etxeko laguntza-zerbitzuaren udal-araudia (Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zorroari buruzko 185/2015 Dekretua). GOFeri eskumenak eskuordetu zitzaizkion (2018. urtea):

*Etxeko laguntza-zerbitzua eskubide subjektiboa dela adierazten du mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arrisku egoetan dauden pertsonentzat (23-24 puntu MBBn). **Gainera, honako hauek ere zerbitzua jaso dezaketela adierazten du: autonomia zailtasunak dituzten eta eguneroko oinarrizko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak; adingabeak, baldin eta haien familiek ezin badiete eman behar duten zaintza eta arreta; laguntza eta ikuskaritza behar duten eta karga gehiegi, harreman-arazoak... dituzten familia- eta/edo pertsona-taldeak; gaixotasun terminalen bat dutenak; eta balorazio tekniko baten arabera zerbitzu honetatik arreta jaso dezaketen pertsona eta/edo egoera guztiak.***

Aipatutako Lege Dekretuak mendetasuna aitortuta duten pertsonen arreta hobetzen badu ere, ez dugu ulertzen, ezta partekatzen ere, aurrerantzean zerbitzu hori ez ematea mendetasun-arriskua duten pertsonen eta hala eskatzen dutenei.

Hori dela eta, Udalbatzak, gehiengo, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatu dio indarrrik gabe uzteko etxeko laguntza-zerbitzuaren prestazioa aldatzeko jarraibideak, orain arte pertsona autonomoei eskaini zaizkien zerbitzuei dagokionez.

BIGARRENA. Erabaki hau Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari helaraziko zaio.

22/2021 espedientea. Foru Gobernu Kontseiluak udaleko gizarte-zerbitzuak mantentzeko hartutako erabakiaren 7. luzapena onartzeko erabaki-proposamena

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Alkateak bozketarako aurkeztu du Foru Gobernu Kontseiluak udaleko gizarte-zerbitzuak mantentzeko hartutako erabakiaren 7. luzapena gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Eduardo Lorza García zinegotziak esan du zazpigarren luzapenera iritsi garela udalaren eskumeneko gizarte-zerbitzuen prestazioa erregulatu gabe, eta gai hori seriotasun handiagoz hartu eta lehentasuna eman behar zaiola adierazi du. Alkate jaunak ados dagoela erantzun du eta foru gobernuari hala helarazten diotela adierazi du.

Alkate jaunak proposamena bozketarako aurkeztu du eta, aho batez, honako eduki hau onetsi da:

Ikusi da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 12/2088 Legeak xedatutako eskumenen banaketa berria, eta zehazki, lehen mailako arretako eta bigarren mailako arretako zerbitzuak ematearen arteko bereizketa. Bai eta herritarrei gizarte-zerbitzuak emango zaizkiela bermatzeko borondatea ere, foru- eta toki-administrazioaren artean modu partekatuan kudeatzen ziren zerbitzuak berrantolatzen ziren bitartean, 2016ko abenduaren 26an, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuen gizarte-zerbitzuak behin-behinean mantentzeko 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerrietan partekatutako kudeaketa-sistema berarekin, 2018ko abenduaren 26ra arteko indarraldiarekin.

2018an zehar etxeko laguntza-zerbitzuari zegokion lana amaitu zen, eta 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten arabar udalerriek Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zuten zerbitzuaren prezio publikoa kobratzeko eskumena, eta kudeaketa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari esleitu zitzaion.

Gainerako gizarte-zerbitzuak falta zirenez, Foru Gobernu Kontseiluak 2016an hartutako





erabakiaren lehenengo luzapena onartu zuen (2020ko ekainaren 26ra arte). Pandemia zela eta, ezin izan ziren burutu falta ziren lanak, hortaz, bigarren luzapena adostu zen.

2020an zehar, Eguneko Arretarako Landa Zentroein dagokion zerbitzua burutu zen; hala ere, gainerako zerbitzuak burutzeko beharrezkoa izan zen hirugarren luzapen bat adostea (2021eko abenduaren 31ra arte).

Lanen aurrerapena zela eta, oraindik ere laugarren luzapen bat behar izan zen 2022ko ekainaren 30era arte, etxebizitza komunitarioen zerbitzuari buruzko lanak 2022ko martxoan amaitzeko, eta gainerakoa urte horretako ekainaren 30ean amaitzeko.

2021 eta 2022 urteetan etxebizitza komunitarioetan lanean jarraitu zen beharrezko dokumentazioa prestatuz (erakundeen konpromiso ekonomikoak adostea falta zen), bai eta gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze zerbitzuan sartzeko araudia prestatuz ere, horren behin betiko onepenaren zain.

Foru Gobernu Kontseiluak burutzeko zituen lanak amaitu ezin izan zirenez, ekainaren 28ko 396/2022 Erabakiaren bidez bosgarren luzapena onetsi zen eta abenduaren 28ko 883/2022 Ebakiaren bidez 2023ko abenduaren 31ra arteko seigarren luzapen bat onartu zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren zazpigarren luzapena (2024ko abenduaren 31ra arte) izapidetzea beharrezkoa iritzienez, Foru Gobernu Kontseiluak abenduaren 26ko 882/2023 Erabakiaren bidez onetsi zuen.

Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Adieraztea Zigoitiko Udala ados dagoela Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 26ko 882/2023 Erabakiarekin. Horren bidez, Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren zazpigarren luzapena 2024ko abenduaren 31ra arte onartzea erabaki zen. Erabaki horren bidez, gizarte-zerbitzuei behin-behinean eustea onartu zen, Arabako Foru Aldundiak 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerrietarako kudeatzen zituen baldintzetan.

BIGARRENA. Alkate jaunari ahalmena ematea erabaki horrek eskatzen duena garatzeko eta kudeatzeko.

HIRUGARRENA. Arabako Foru Aldundiari erabaki hau jakinaraztea, testuaren bigarren puntuan aurreikusitako ondorioetarako.

133/2023 espedientea. Ondategiko Administrazio Batzarraren dirulaguntzaren aldaketari buruzko mozioa. 2023ko Zigoitiko kontzejuen obretarako diru-laguntzen deialdiaren barruan.

Aldekoa	Bozketa mota: ohikoa/aho batez
<p>Alkate jaunak bozketarako aurkeztu du Ondategiko Administrazio Batzarraren dirulaguntzaren aldaketari buruzko mozioa, 2023ko Zigoitiko kontzejuen obretarako diru-laguntzen deialdiaren barruan, gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.</p> <p>Alkate jaunak mozioa bozketarako aurkeztu du eta, aho batez, honako eduki hau onetsi du:</p> <p>Ondategiko Administrazio Batzarrak Lagagorri kalea urbanizatzea finantzatzeko aurkeztu duen dirulaguntzaren eskaria aztertu da. Eskaria 2023ko otsailaren 3ko 54. Alkatetzaren Dekretu bidez onartutako 2023ko dirulaguntzen deialdiaren barruan egin zen.</p> <p>Ikusi da Udalbatzak 2023ko uztailaren 13ko bilkuran hartutako erabakia. Erabaki horren bidez Zigoitiko kontzejuentzako 2023ko deialdiari dagozkion dirulaguntzak eman ziren.</p> <p>Ikusi dira diru-laguntzen deialdi horretan sartutako obra eta zerbitzuetarako egindako gastuak justifikatzeko agiriak, administrazio-batzar eskatzaileek aurkeztutakoak.</p>	





Ikusi da 2024ko martxoaren 25ean Udalbatzak hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, kontzejuen behin betiko dirulaguntzak aitortu ziren. Ondategiko Administrazio Batzarrari honako dirulaguntza hau eman zitzaion:

ADMINISTRAZIO BATZARRAK	ESKATUTAKO OBRAK	DIRUZ LAGUNDUTAKO AURREKONTUA	JUSTIFIKATUTAKO GASTUA	BESTELAKO LAGUNTZAK	DIRULAGUNTZA
ONDATEGI 1	Lagagorri kalearen iparraldearen urbanizazioa	235.912,76 €	214.370,45 €	181.271,65 €	33.098,80 €

Ikusi da 2024ko apirilaren 9an Ondategiko Administrazio Batzarrak idatzi bat aurkeztu zuela gainfinantzatuta zegoela adierazteko. Izan ere, Udalak kontuan hartu ez zuen dirulaguntza bat jaso zuen, LEADER programarena, eta hortaz, 12.282,12 €-ko dirulaguntza besterik ez dagokio.

Ikusi da 2015eko apirilaren 15ean udal-arkitektoak adierazi zuela Ondategiko Administrazio Batzarraren alegazioa onartu behar zela, eta 12.282,12 euroko dirulaguntza onartu behar zela Ondategiko Administrazio Batzarrak sustatutako Ondategiko Lagagorri kalearen iparraldea urbanizatzeko obretarako, Zigoitiko udalerriko kontzejuei zuzendutako obrak eta zerbitzuak finantzatzeko 2023ko ekitaldiko deialdiaren barruan. Hona hemen dirulaguntzaren laburpen-taula:

Obraren amaierako kostua		Dirulaguntzak				
Obra	395.991,33 €	AFA	Behin betiko dirulaguntza	314.231,51€	352.137,42 €	
			Dirulaguntzaren osagarria	26.306,95 €		
			Ordainsariak	11.598,96 €		
		EJ	Behin betiko dirulaguntza	44.311,43 €	47.320,43 €	
			Ordainsariak	3.009,00 €		
		Ordainsariak	26.890,08 €	Zigoitiko Udala	2022	11.141,44 €
	422.881,41 €		2023	12.282,12 €		
					422.881,41 €	422.881,41 €

Zigoitiko Udalaren kontzejuen dirulaguntzak aitortzeko berariazko ordenantzaren 6. artikuluekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. Ondategiko Administrazio Batzarrari Ondategiko Lagagorri kalearen iparraldea urbanizatzeko obrarako emandako dirulaguntza gutxitzea onartzea, gainfinantzaketa saihesteko, eta 12.282,12 euroko behin betiko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA. Ondategiko Administrazio Batzarrari 12.282,12 €-ko dirulaguntza ematea agintzea, 943.734.000 aurrekontu-aplikazioaren kontura.

HIRUGARRENA. Erabaki hau Ondategiko Administrazio Batzarrari jakinaraztea eta dagozkion errekurtsioen berri ematea.

LAUGARRENA. Emandako eta ordaindutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

B) KONTROL-JARDUERA

2023ko otsailtik abuztura bitarteko kontaketa-aktak

2023ko otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain, uztail eta abuztuko gastu eta sarreraren aurrekontuaren eta kontaketa-akten gauzatzeko-egoeraren berri eman da, bai eta Diruzaintzako Kontuarena ere. Talde politikoetako ordezkari bakoitzari kopia bana eman zaio, azter dezan. Hona hemen emaitzak:

2023ko OTSAILEKO KONTAKETA





HASIERAKO IZAKINAK.....	3.705.357,96
€	
Aurrekontuko sarrerak.....	114.698,89
€	
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	
20.696,90 €	
Aurrekontuko ordainketak.....	
263.698,39 €	
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	34.217,52 €
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	8.441,46
€	
IZAKINAK GUZTIRA.....	
....3.534.396,38 €	

2023ko MARTXOKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.534.396,38
€	
Aurrekontuko sarrerak.....	
75.823,51 €	
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	
45.544,36 €	
Aurrekontuko ordainketak.....	
180.190,71 €	
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	7.344,82
€	
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	22.493,80 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	
....3.445.734,92 €	

2023ko APIRILEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.445.734,92
€	
Aurrekontuko sarrerak.....	404.277,02
€	
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	
10.261,67 €	
Aurrekontuko ordainketak.....	
129.398,67 €	
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	2.753,56
€	
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	0,00 €
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.728.121,38 €

2023ko MAIATZEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.728.121,38
€	
Aurrekontuko sarrerak.....	95.841,17
€	
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	
29.540,73 €	





Aurrekontuko	ordainketak.....	
704.045,41 €		
Aurrekontutik	kanpoko	ordainketak.....
.....26.280,68 €		
Sarrerak	bueltatzeagatiko	ordainketak.....
.....221,37 €		

IZAKINAK
GUZTIRA.....3.122.955,82 €

2023ko EKAINAREN 1etik 14ra BITARTEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.122.955,82	
€		
Aurrekontuko sarrerak.....	423.922,92	
€		
Aurrekontutik	kanpoko	sarrerak.....
11.582,09 €		
Aurrekontuko	ordainketak.....	
237.142,38 €		
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	204,29	
€		
Sarrerak	bueltatzeagatiko	ordainketak.....
369,84 €		

IZAKINAK **GUZTIRA.....**
.....3.320.744,32 €

2023ko EKAINAREN 15etik 30era BITARTEKO KONTAKETA

HASIERAKO	IZAKINAK.....	
.....3.320.744,32 €		
Aurrekontuko	sarrerak.....	
.....50.992,47 €		
Aurrekontutik	kanpoko	sarrerak.....
27.787,49 €		
Aurrekontuko	ordainketak.....	
338.505,38 €		
Aurrekontutik		kanpoko
ordainketak.....	19.888,75 €	
Sarrerak		bueltatzeagatiko
ordainketak.....	0,00 €	

IZAKINAK
GUZTIRA.....3.041.130,15 €

2023ko UZTAILEKO KONTAKETA

HASIERAKO	IZAKINAK.....	
.....3.041.130,15 €		
Aurrekontuko		
sarrerak.....	401.823,70 €	
Aurrekontutik	kanpoko	sarrerak.....
.....12.443,80 €		
Aurrekontuko	ordainketak.....	
.....79.741,44 €		
Aurrekontutik	kanpoko	ordainketak.....
.....35.743,12 €		
Sarrerak	bueltatzeagatiko	ordainketak.....
.....0,00 €		





IZAKINAK **GUZTIRA**.....
.....**3.339.913,09 €**

2023ko ABUZTUKO KONTAKETA

HASIERAKO **IZAKINAK**.....
3.339.913,09 €
Aurrekontuko sarrerak.....
.....26.324,37 €
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....
20.298,45 €
Aurrekontuko ordainketak.....
487.364,04 €
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....13.433,41 €
Sarrerak bueltatzeagatik ordainketak.....620,47 €

IZAKINAK **GUZTIRA**.....
.....**2.885.117,99 €**

103tik 149ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0103 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Letonako udalerrian toponimiako hesolak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0104 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Acostako 5. poligonoko 1207. partzelako kirol kantzako estalkian alboko olanak jartzeko hormigoizko zapatak egiteko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0105 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 6. poligonoko 1035. partzelako zentro sozialaren ondoan erabilera anitzeko estalkia eraikitzeke obra handiaren lizentzia emateko]

2024-0106 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Acosta udalerriko Elizalde eta Ortonzi kaleen arteko bidegurutzean ispilu bat jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0107 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Acostako 5. poligonoko 1207. partzelako kirol kantzaren alboetan eta aurrealdean PVCzko olana bertikalak instalatzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0108 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzeko]

2024-0109 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko berdintasunerako jardueretarako dirulaguntzen eskaerak onesteko]

2024-0110 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berikanoko 6. poligonoko 1281. partzelan panel fotovoltaikoak jartzeko lizentzia gabe egindako obrak legeztatzeke]

2024-0111 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina berritzeko eta zabaltzeko 22. ziurtagiria onesteko]

2024-0112 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko euskaraz sozializatzeko programak garatzeko dirulaguntza eskatzeko]

2024-0113 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen eroldan behar ez bezala





inskribatzeagatik ofizioz baja emate aldera espedientea hasteko]

2024-0114 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0115 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Itzulia Basque Countryko 5. etaparen kirol proba baimentzeko]

2024-0116 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024an garatuko diren proiektuetarako DESTINO GAMBIA GIZARTE GARAPENEN ELKARTEARI dirulaguntza izenduna emateko]

2024-0117 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emate aldera espedientea hasteko]

2024-0118 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ezkontza zibila egiteko ahalmena eskuordetzeko]

2024-0119 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Korrikaren 23. edizioko babesletza-kontratua]

2024-0120 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jarduketa-sistema aldatu ondoren Murua udalerriko UE-3ren kudeaketa sustatzeko epea emateko]

2024-0121 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Pagazuri aterpetxea erabiltzeagatik tasa itzultzeko]

2024-0122 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga biltzeko erroldan ez-egiteagatik likidazioa onartzeko]

2024-0123 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, San Pedroko baserrietan (Acosta/Okoiyta) dauden 5. poligonoaren 1068. partzelaren A azpipartzelan sartzeko baimena eskatzeko]

2024-0124 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 754. partzelan etxebizitza eraikitze espedientean berrezartze-errekurtsoa zati batean baiesteko]

2024-0125 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 1147. partzelan etxebizitza eraikitze amaierako dokumentazioa aurkezteko azkeneko epe luzaezina emateko]

2024-0126 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeialdeko Kuadrillak Udalarari emandako zerbitzuen gastua onartu eta defizita ordaintzeko agindua emateko]

2024-0127 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HAPO idazteko lanen jarraipenerako, aholkularitzarako eta laguntza teknikorako kontratuaren adjudikazio-prozedurako lizitatzaila hoberenari dokumentazioa eskatzeko eta eskaintzak sailkatzeko]

2024-0128 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko apirilaren 13an Zigoitia udalerrian Zuiako Duatloia egitea baimentzeko]

2024-0129 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ibilgailuaren behin betiko bajaren likidazioa onesteko, 2024ko TMIZren bilketa-errolda onetsi ondoren]

2024-0130 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, DESTINO GAMBIA GIZARTE GARAPENEN ELKARTEARI dirulaguntza izenduna emateko 2024-0116 dekretua zuzentzeko]

2024-0131 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Arabako Foru Aldundiko nahitaezko diru-bilketari bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzeko]

2024-0132 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ibilgailuaren behin betiko bajaren likidazioa onesteko, 2024ko TMIZren bilketa-errolda onetsi ondoren]

2024-0133 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Muruako 3. Poligonoko 539. partzelan hesia konpontzeko lizentzia emateko eta saiak garbitzeko lizentzia ezesteko]

2024-0134 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024/7 kutxa finkoaren aurrerakinaren funtsak





birjartzeko]

2024-0135 DEKRETUA, [Alkatetzaren Ebazpena, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emateko]

2024-0136 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 6. poligonoko 1221. partzelan dagoen etxebizitzan aeroterminia-sistema jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0137 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, aurkeztutako eskaintzak sailkatzeko eta eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzailerari errekerimendua egiteko]

2024-0138 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 5. poligonoko 1100. partzelako etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak jartzeagatiko EIOZren hobariaren eskaria ezesteko]

2024-0139 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, VI-10180 ehiza-barrutiaren errentamendu-kontratuaren (2019-2024) behin betiko bermea itzultzea onartzeko]

2024-0140 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko kultura-, gizarte- eta/edo kirol-jardueretako dirulaguntzak behin betiko emateko]

2024-0141 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako saneamendu-sarea hobetzeko obraren 1. ziurtagiria onartzeko]

2024-0142 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 3. poligonoan 357. partzelako etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak jartzeagatiko EIOZren hobariaren eskaria ezesteko]

2024-0143 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitia udalerriko administrazio-batzarrek 2023ko EIOZren diru-bilketan parte hartzea onartzeko]

2024-0144 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0145 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, dirulaguntza itzultzeko adierazpena]

2024-0146 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/8 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0147 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, urtarriletik maiatzera eta urritik abendura padelikastaroak emateko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0148 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 6. poligonoan 1228. partzelako etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak jartzeagatiko EIOZren hobaria emateko eta behin betiko likidazioa egiteko]

2024-0149 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2021-2022 ikasturtean musika-irakaskuntzako programa garatzeko ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEARI dirulaguntza izenduna itzultzeko]

Alkatetzaren txostenak

GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIAREN INGURUKO INKESTA:

Alkate jaunak jakinarazi du 32 inkesta jaso dituela gazteen etxebizitza-premiaren inguruan, eta horietatik hartutako informazioarekin txosten bat egin du.

ODOLA EMATEKO AUTOBUSA:

Alkate jaunak jakinarazi du odola emateko autobusa Zigoitian egongo dela maiatzaren 21ean, 16:30etik 20:00etara.





HAURRESKOLAKO MATRIKULA:

Alkate jaunak jakinarazi du Haurreskolako matrikulazio-epaia apirilaren 22an ireki eta maiatzaren 10ean itxiko dela.

C) ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaerak eta galderak

MANTENTZE-LANETARAKO BIGARREN LANGILEAREN PLAZA:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak mantentze-lanetarako bigarren langilearen plaza bat eratzeko sustapenaren inguruan galdetu du. Alkate jaunak erantzun du idazkariarekin gaur bertan hitz egin duela espedienteak sustatzen hasteko.

AUTOEN PILAKETA ANTZINAKO SAGARDOTEGIAN:

Eduardo Lorza García zinegotziak galdetu du nola joan den ikuskapena sagardotegi zaharrea, auto asko baitaude aparkatuta. Alkate jaunak erantzun du jabeek ez dutela argazkirik ateratzen utzi. Hala ere, badirudi auto asko kendu dituztela eta teknikariek egiteke dagoen erregulazioaren berri eman behar dute.

ANFIBIOEN URMAELA:

Eduardo Lorza García zinegotziak adierazi du landa-lurzoruan itxitura bat egin dela anfibioen espezieak babesteko sortutako putzu artifizial baten gainean, eta badirudi iragazgaitza hautsi dutela, azkar lehortzen baita.

Iñigo Gracianteparaluceta López de Ipiña zinegotziak erantzun du ez duela itxiera horretarako lizentzia eman izanaren berri eta gertatutakoa aztertuko duela.

PILOTALEKUKO OBRAK:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak pilotalekuko obren egoerari buruz galdetu du. Alkate jaunak erantzun du ia amaituta daudela eta dagoeneko pilotalekua jendearentzat irekita dagoela arratsaldeetan. Bihar argi-fokuak jarriko dituztela adierazi du.

LABAKITUAK:

Eduardo Lorza García zinegotziak hutsik dauden labakituen adjudikazioaren inguruan galdetu du. Iñigo Gracianteparaluceta López de Ipiña zinegotziak erantzun du zenbait labakituren erregularizazioa amaitu zain daudela lizitazio guztiak ateratzeko. Eduardo Lorza García zinegotziak gehitu du denak batera ateratzeko zain bagaude, denbora luzea igaroko dela hutsik dauden lursail horiek aprobetxatu gabe.

Alkate jaunak baieztatu du aurki izapidetuko direla hutsik dauden labakituen lizitazioak.

OSASUN-ZENTROAREN ALBOAN DAGOEN ETXEBIZITZA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak osasun zentroaren alboan dagoen etxebizitza publiko egitearen eskaintzaren gainean galdetu du. Alkate jaunak erantzun du sukaldea egokitzeko obren kontratua izapidetzen ari dela. Adierazi du etxebizitza tasatuko udal-ordenantzaren onespena ere izapidetzen ari direla.

EHIZA BARRUTIA:

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak "Zigoitia" izeneko VI-10.180 ehiza-barrutiaren izapidetzaren gainean galdetu du.

Idazkariak adierazi du adjudikazio egiteko Arabako Foru Aldundiak barrutia berritzeari buruzko erabakia hartzeko zain dagoela. Era berean, azaldu du prozesuan parte hartu duten baina





eskaintzarik onena aurkeztu ez duten kirol-klubek pleguaren aurkako errekurtsua aurkezteko borondatea agertu dutela, eta udalak, errekurtsuak aztertu ondoren, kontratazio honetan atzera egiteko aukera duela, erabateko deuseztasun-kausa atzemanaz gero.

Idazkaritzaren eginbidea:

2024ko maiatzaren 20ko ohiko osoko bilkuran, alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko apirilaren 15eko aktari.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak eskatu du 2024ko apirilaren 15eko bilkurako aktan etxeko laguntza-zerbitzuaren mozioaren botazioaren emaitzei dagozkien hainbat akats zuzentzeko, bai eta udal-langileari gradu pertsonala aitortzeari buruzko datu batzuk ere. Inork ez du bestelako oharrik egin, eta, Toki Erakundearen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

